

Gaurko munduaren ezaugarriak

Jon Sudupe

Saiakera egilea

Lehenago ere aipatu izan dugu hemen Luc Ferry pentsalari frantziarra. Ferry intelektual ezaguna da Frantzian. Besteak beste, «68ko pentsaera» delakoaren kontrako manifestu filosofikoa idatzi zuen 80ko hamarkadan. Hezkuntza ministroa ere izan zen 2002 eta 2004 artean, Chirac presidente zela.

Zein izan dira XX. mendearen berezitasunak? Zer nolakoak dira orainaldia markatzen duten joerak? Hiperkontsumoaren gizarte honetan, zein dira gorde beharreko baloreak? Galdere horiei erantzun nahi izan die Luc Ferryk bere azken saiakeran, *La révolution de l'amour* (Maitasunaren iraultza) deritzan liburuan (Pion, Paris, 2010). Haren iritzian hiru dira gaurko munduaren ezaugarri nagusiak, Europan gutxienez.

Balore tradizionalen «dekonstruzioa» da lehen bereizgarria. Ehunka urtetan baino aldaketa sakonagoa gertatu da urte gutxiaren buruan, bai arteari, bai moralari, bai emakumeen egoerari, bai

homosexualei zein baserriarrei eta eskolari dagokionez. Itxura batean, «bohemio biziera» izan da lehenago tradizioak bazter utzi dituen eragilea. 1830etik hona, abentura horren xehetasunak azaltzen dizkigu egileak.

Horrela uste izan du askok. Baina errealitatea —L. Ferryk dioenez— oso bestelakoa da: oraintsuko historiaren egiazko motorra ez da bohemia izan, kapitalismoa baizik. Hots, «mundializazioa» izan da gizarte aldatu duen indarra. Galtzardarrien azpian —dio frantses intelektualak— ez zegoen hondartzarik, globalizazio baizik («*Sous les pavés, il n'y avait pas la plage, mais la globalisation*»). Atsegin bazeu edo ez bazeu, globalizazio liberalak irabazi du. Beharrezkoa zen, horretarako, balore tradizionalak deseraikitzea kontsumoaren ekonomian sartu ahal izateko.

Maitasunaren erlijio laikoaren etorrera da hirugarren ezaugarria. Maitasuneko ezkontzan oinarrituriko familia modernoaren eraginez, «sakratuaren» irudi berri baten aurrean gaude: gizatasunean hezur-mamituko sakratutasunaren aurrean. «Sakratu» hitzak ez du

zentzu erlijiosoa hemen, humanista baizik (lagun hurkoarengatik «sakrifikatzeko» prest gaude). Esfera pribatua nagusitu zaio politikari; familia, bizitza publikoari. Gaurko Europan inork ez du Jainkoarengatik, aberriarengatik, iraultzarengatik hil nahi, fanatiko hutsa ez bada behintzat. Maite ditugunengatik, berriz, edozer gauza egiteko prest gaude. Filosofo frantziarren iritzian, espiritualtasun laiko berria ari da sortzen.

XX. mendeak eragin korrosiboa izan du: idealik sakratuenak desegin ditu. Mendebaldeko arrazionaltasunak baloreen sekularizazio sakona ekarri du. Nietzsche filosofian, Schönberg musikan, Picasso pinturan, Joyce literaturan... Garai bateko tabu asko eta asko gainbehera etorri eta hautsi egin dira. Kontrakultura horrek —Luc Ferryren esanetan— bi ondorio izan ditu: globalizazio liberalaren etorrera eta bizitza pribatuaren sakralizazioa. Bitxia badirudi ere, abangoardiak erraztu egin dute bidea.

Nola berreraiki beharko genuke geure gizartea? Zein baloreen gainean? Luc Ferryk dioenez, bizitza pribatua da gakoa. Egunetik egunera prota-

gonismo handiagoa du. Baina horrek ez du esan nahi mundu mailako arazoei uko egin behar zaienik, ezta geure baitan itxi behar dugunik ere. Aitzitik, humanismoa bere adin nagusitasunera iritsi den seinale da hori. Ez da, inola ere, egozentrismora itzultzea, ezta bakarririk bizitzea ere.

Gaur arte, «antzinakoen askatasuna» gailendu da: «Deñazen politika». Orain, «moderno askatasuna» nagusitu da, maitasunaren oinarritutako familia modernoan. Familia gero eta garrantzitsuagoa bihurtu da. Askok kritikatu izan du instituzio familiarra, baina, egiaz, familiaren baloreak inoiz ez dira gaur bezain errotuak egon. Horren erakusgarri da seme-alabak 30 urte arte geratzen direla gurasoen etxean. Ezbeharren baten kasuan, familiaren altzoan aurkitu ohi ditugu egiazko elkartasuna eta babesa. Funtsean, maitasunak ematen dio zentzua gure bizitzari (Justiziaren eta amaren artean, ama hautatu zuen Albert Camusek).

Kontserbadoreek diotenez, familia gaizki doa dibortzio asko dagoelako. Baina maitasunean eta aukera librean oinarritua dagoen seinale da hori. 1960. hamarkadaz gero, maitasunaren

oinarritu da bikotea. Jakina, maitasun sentimentuan oinarritzeak, gauza ahul eta aldakor baten gainean eraikitzea esan nahi du. Hortik hainbeste dibortzio. Familia homoparentala ere maitasuneko ezkontzaren logikan sartzen da (gaur egun gero eta haur gehiago dira bikote homosexualekin bizi direnak). Oraindik ez gara konturatu iraultza isil honen tamainaz eta sakonera.

Merkatuaren logika nagusitu bada ere, balore transzendentak ez dira desagertu. Luc Ferryk transzendentziara irekitako humanismoa aldarrikatzen du, «immanentiaren transzendentzia», alegia. Beraren ustez, etika laikoa ez da nahikoa, beharrezkoa da espiritualtasuna, «moderno jakituria», zentzuaren bilaketa. Zientzia positiboei ez omen dagokie azken galderei erantzutea.

Etika laikoek —dio Ferryk— ez diote gaurko gizakien esperientzien osotasunari erantzuten. Norbere buruarekiko eta gure esperientziakiko auzi asko diskurtso moraletik kanpo daude. Azken arazoekiko, giza destinoarekiko eta bizitzaren zentzuarekiko kezak iraun egiten du.

Eguneroko gertaeren zurrumbilao ez galtzeko, beharrezkoa da munduko joera orokorren berri jakitea. Nahitaezkoa da gaurko kulturaren bereizgarriak ezagutzeko. Horregatik, zinez gomendagarria da Luc Ferryren *La révolution de l'amour* lan mardula. Nahiko erraz irakurtzen den liburua atsegina da, gainera. Zeuk esango duzu, irakurle, bat zatozen ala ez haren tesiekin.

Telesfororen oroitzapenetan

J. L. Alvarez Enparantza
«Txillardegik»

Idazlea

Telesforo Monzon, Bergara-ko *Olaso* dorrean jaio zen 1904ko abenduaren 7an.

1928-1929 urteetan, Madrilera joan zen lege-gizonaren ikasketak egitera. Berak aitortu izan duenez, ikasle txarra izan zen. Ordurako Euskal Herriarekiko kezka zeraman iltzaturik eta honek ez zion batere lagundu Madrilera ikasketak ongi egiteko.

1930ean euskara hobeki menderatu nahi zuen, eta horretarako *Urkizu*-ko baserri batera joan zen. Han hilabete batzuk eman zituen euskaraz ikasten.

Eta 1931n gauza izan zen artikuluak eta hitzaldiak euskaraz emateko.

1933an PNVko diputatu aukeratu zuten.

1936ko urriaren 7an, lehenengo Eusko Jaurlaritzan parteidea izan zen; Jose Antonio Agirre-ekin eta gainerakoekin (Barne Ministroa izan zen).

Espainiako gerra amaitzean, Mexicora aldegin zuten, Alsina ontzi famatuan. Han Niceto

Alcala Zamora, espainiar Errepublikako Presidentearekin topo egin zuten; eta Alsina ontzian iritsi zen Mexicora.

Mexicoko deserrialdian, bi poema liburu idatzi zituen: *Urrundik* 1945ean eta *Gudarien eginak* 1947an.

Telesforo Mexicotik itzultzean, bere eginbeharretara itzuli zen.

1946an, Eusko Jaurlaritzaren izenean, Gurs-en zeuden euskal deportatuak bisitatzerako joan zen.

1953an, hartu ziren erabakiak kaltegarri zirelakoan, dimisioa eman zuten Eusko Jaurlaritzan.

Telesforo eredu bat izan da abertzaleontzat. 'Olaso' dorre ederretik zeharo hurbildu zen orduko gazteetara. Pausu ausart hau gutxi eman dute. Jatorrizko mundutik, herri xehearekin bat egin arte

1960tik aurrera, Telesforo hurbildu zen ETARA; eta jarrera horretan egon zen ondoko urteetan.

Handik urte batzuetara, 1968an, Anai Artea sortu zuten Piarres Larzabal apezarekin (*Zoko* erretora urte askotan izana) eta Angel Arregi, Anai Arteko sekretarioarekin.

1979an, bigarren aldiz diputatu izan zen (oraingoan H.B.ren izenean).

Horretatik aurrera, Telesfororen kondaira ezaguna da. Eta artikulu labor honetan, xehetasunetan sartzetik ez daukat. Barka nazazue.

Telesforo Monzon Baionako ospitalean hil zen, 1981eko martxoaren 9an.

Telesforo eredu bat izan da abertzaleontzat. *Olaso* dorre ederretik zeharo hurbildu zen orduko gazteetara. Pausu ausart hau gutxi eman dute. Jatorrizko mundutik, herri xehearekin bat egin arte.